AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Araubidezko garapena.

Dekretu honen garapenerako beharrezkoak diren xedapenak agintzeko ahalmena ematen zaio Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari.

*Bigarrena.*– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunenan jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko uztailak 18.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte
Segurantza sailburua,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social para que dicte cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de julio de 1995.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

## HERRIZAINGO SAILA

### 2893

350/1995 DEKRETUA, uztailaren 4koa, apustu hipikoak arautzen dituena.

Euskadiko Autonomia-Estatutuaren 10.35 atalean esaten denez, «Kasino, joko eta apustuak, Apuestas Deportivo Benéficas deritzenak izan ezik», eta apustu hipikoa ez da salbuespen horietako bat, Euskal Autonomi Elkartearen erabateko aginpidekoak dira. Atal hori garatzearren Eusko Legebiltzarrak jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legea onartu zuen. Apustu hipikoak lege horretan jasotzen dira, eta dekretu honen asmoa aipaturiko legea garatzea da, apustu hipikoari dagokionez.

Dekretu honetan Herrizaingo Sailari dagozkion eginkizun eta ahalmenak azaltzen dira, ondoren, arlo honetako arau orokorrei buruzko azalpenak ematen dira bi atalburutan, nahiz eta arau horiek onartzea Gobernu-Kontseiluaren esku egon, eta azkenik apustuak kudeatu nahi dituzten erakundeek bildu beharreko baldintzak ezartzen dira, apustularien bidezko interesak segurtatzearren.

Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearekin bat, apustuarekin loturik dauden iharduera guztiek aurretiazko baimena behar dute. Administrazioaren kontrolarekin batera, parte hartzerik ez dutenen debeku-sistema zehatza dago eta horretan oinarritzen da, hain zuzen, apustularien eskubideen bermea. Gerora ere, Herrizaingo Sailaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak etengabeko kontrola eta ikuskaritza egiten du. Horiez gain, apustularien segurtasuna eta konfidantza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 2893

DECRETO 350/1995, de 4 de julio, por el que se regulan las apuestas hípicas.

El artículo 10.35 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco dispone que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de «Casinos, Juegos y Apuestas, con excepción de las Apuestas Mutuas Deportivo-Benéficas», entre las que no se incluye la apuesta hípica. En desarrollo de dicho artículo el Parlamento Vasco aprobó la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, incluyendo en su ámbito las apuestas hípicas. Tal es la pretensión del presente Decreto, desarrollar la referida Ley en relación con la apuesta hípica.

El Decreto, una vez definidas las funciones y potestades que corresponden al Departamento de Interior, define en dos Capítulos las normas generales de la materia, cuya aprobación, en todo caso, corresponde al Consejo de Gobierno, y los requisitos de las entidades que pueden gestionar las apuestas, siempre con la finalidad de garantizar los legítimos intereses de los apostantes.

De conformidad con la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, todas las actividades vinculadas con la apuesta se someten a autorización previa. Tal régimen de control administrativo unido a un exhaustivo sistema de prohibiciones de participación en las apuestas, suponen el fundamento de la garantía de los legítimos derechos de los apostantes, a lo que se añade el control e inspección permanente que ejerce la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento

ziurtatzeko bermeak ere badaude, Jokoaren Legean ezarritako zehapen-araubide zorrotzarekin batera.

Apustu hipikoa elkar-apustua da, eta dituen motak azaltzen dira eta horren inguruko araubide juridikoa ezartzen da.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Jokoaren Euskal Kontseiluak emandako txostena ikusita eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko uztailaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

Xedapen orokorrak

*1. atala.*– Helburua.

Dekretu honen helburua zaldi-lasterketen emaitzei buruzko apustuak arautzea da, baita baimenaren menpeko iharduerak arautzea ere.

*2. atala.*– Herrizaingo Sailaren aginpideak.

Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean eta dekretu honetan ezarritakoa betez, zaldi-lasterketen emaitzei buruzko apustuen arloan honako aginpide hauek, besteak beste, dagozkio Herrizango Sailari:

a) Zaldi-lasterketen emaitzei buruzko apustuen araubide orokorra onartzea eta apustuak baimentzeko baldintzak zehaztea.

b) Apustuak eta horien txartelak jaso eta erregistroan gordetzeko lekuak antolatu, ustiatu eta kudeatzeko baimena ematea. Apustu-txartelak jasotzeko eta erregistroan gordetzeko makinek administrazio-baimena ere beharko dute izan.

c) Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 34. atalean eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki, ikuskaritza eta kontrol-ahalmenak erabiltzea.

d) Orokorrean, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, dekretu honek eta garatzeko arauek Sailaren esku utzitako aginpide guztiak erabiltzea.

II. ATALBURUA

Apustu hipikoei buruzko arau orokorrak.-

*3. atala.*– Araubide juridikoa.

1.– Zaldi-lasterketak antolatzerakoan, arau bereziei edo Lasterketa-Kodeari lotuko zaie. Lasterketa-Kodea bakarra izango da Euskal Autonomi Elkartean.

2.– Emaitzei buruzko apustuak Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean, dekretu honetan, horren garapen-arauetan eta, doakien guztietan, Lasterketa-Kodean ezarritakoaren arabera egingo dira.

*4. atala.*– Apustuen izaera.

de Interior, y garantías de la seguridad y confianza de los apostantes, añadidas al riguroso régimen sancionador de la Ley de juego.

La apuesta se define como mutua, se describen sus tipos, y se regula su régimen jurídico.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco del Juego, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de julio 1995,

DISPONGO:

CAPÍTULO I

Disposiciones Generales.

*Artículo 1.*– Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de las apuestas sobre resultados de carreras de caballos así como la regulación del régimen de actividades sujetas a autorización.

*Artículo 2.*– Competencias del Departamento de Interior.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego y el presente Decreto, corresponde al Departamento de Interior en materia de apuestas sobre resultados de carreras de caballos, entre otras las siguientes competencias:

a) Aprobar la reglamentación general de apuestas sobre resultados de carreras de caballos y determinar los supuestos en que pueden ser autorizadas.

b) Autorizar la organización, explotación y gestión de apuestas, así como los locales habilitados para la recepción y registro de las papeletas o tickets de apuestas. Las máquinas que sean utilizadas para la recepción, registro de las papeletas o tickets de apuestas, precisarán, igualmente, de autorización administrativa.

c) Ejercer las facultades de inspección y control, conforme a lo dispuesto en los artículos 34 y siguientes de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora de Juego.

d) En general, todas aquellas que le atribuye la ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, el presente Decreto y las normas que lo desarrollen.

CAPÍTULO II

Reglas generales en materia de apuestas hípicas.-

*Artículo 3.*– Régimen Jurídico.

1.– Las carreras de caballos se regularán por su reglamentación específica o Código de Carreras. El Código de Carreras será único en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Las apuestas sobre resultados se regirán por la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, el presente Decreto y las normas que lo desarrollen y, en lo que les sea de aplicación, por el Código de Carreras.

*Artículo 4.*– Naturaleza de las apuestas.

1.– Apustua, dekretu honen ondorioetarako, hauxe da: erakunde antolatzaileek aldez aurretik prestaturiko programan agertzen den zaldi-lasterketa baten edo bat baino gehiagoren emaitzen igarpen-lehiaketa.

2.– Apustua elkar-apustua izango da. Ondorioz, apustu-mota jakin batean bildutako guztia dekretu honen 7. atalean ohartemandako portzentaien arabera banatuko da emaitza igarri dutenen artean.

*5. atala.*– Apustu-motak.

1.– Lasterketak non egiten diren eta zein motatakoak diren aintzat harturik, barrukoak edo kanpokoak izan daitezke.

a) Barruko apustua hipodromoaren barruan, horretarako dauden instalazioetan, eta bertan burutzen diren zaldi-lasterketen gainean egiten dena da.

b) Kanpoko apustua hipodromoetatik at, baimendutako tokietan, eta beste edozein hipodromotan burutzen diren zaldi-lasterketen gainean egiten dena da.

Esandakoaren kaltetan joan gabe, kanpoko apustutzat hartuko da halaber apustugai diren lasterketak apustua egiten den hipodromoan ez beste edozeinetan, edo beste hainbat hipodromotan, burutzen denean.

2.– Apustuen izaera kontuan izanik, apustuak bakunak edo konbinatuak izan daitezke.

a) Honako hauek izango dira apustu bakunak:

– Apustu bakana, bi motetan: bakana irabazlea eta bakana kokatua.
– Bikia.
– Bikia kokatua.
– Superbikia.
– Hirukoa.
– Laukoa.
– Bostekoa.
– Lasterketa bikoitza.

b) Honako hauek izango dira apustu konbinatuak:

– Hirukoitza.
– Hirukoitza bikia.
– Boskoitza.
– Boskoitza berezia.

3.– Aurreko puntuan zerrendaturiko apustuei beste batzuk gehitu ahal izango zaizkie, Herrizaingo sailburuaren aginduz.

4.– Apustu-mota guztiak batera edo arian-arian ezar daitezke, antolatu, ustiatu eta kudeatzeko ardura duten erakundeen proposamenaren arabera, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren baimena lortu eta gero.

*6. atala.*– Apustu egiteko debekuak.

Dekretu honetan arauturiko apustuetan, barrukoetan zein kanpokoetan, parte hartzerik izango ez dutenak hauexek izango dira:

1.– A los efectos del presente Decreto se entiende por apuesta el concurso de pronósticos sobre el resultado de una o varias carreras de caballos incluidas en los programas previamente establecidos por las entidades organizadoras.

2.– La apuesta tendrá carácter de mutua. En consecuencia, las sumas apostadas sobre un determinado tipo de apuesta, una vez aplicado el porcentaje previsto en el artículo 7 del presente Decreto, serán distribuidas entre quienes hubieren acertado el resultado a que se refiere la apuesta.

*Artículo 5.*– Tipos de apuestas.

1.– De acuerdo con el lugar donde se celebren y en función de las carreras sobre las que se apueste, las apuestas pueden ser internas y externas.

a) Se considera interna la que se realiza dentro del recinto de un hipódromo, en las instalaciones habilitadas con tal fin, y en relación con carreras de caballos que se celebran en el mismo.

b) Se considera externa la que se realiza fuera del recinto de los hipódromos, en locales debidamente autorizados, en relación a carreras de caballos que se celebren en cualquier hipódromo.

Sin perjuicio de lo anterior, tendrá, asimismo, consideración de apuesta externa la que se desarrolle dentro del hipódromo referida a carreras que se celebren en varios hipódromos o en hipódromo diferente de aquél en el que se realiza la apuesta.

2.– De acuerdo con la naturaleza de las apuestas estas pueden ser simples o combinadas.

a) Se consideran apuestas simples las siguientes:

– Apuesta sencilla, en las dos variantes: a ganador y colocado.
– Apuesta gemela.
– Apuesta gemela colocada.
– Apuesta supergemela.
– Apuesta trío.
– Apuesta cuarteto.
– Apuesta quinteto.
– Apuesta doble.

b) Se consideran apuestas combinadas las siguientes:

– Apuesta triple.
– Apuesta triple gemela.
– Apuesta quíntuple.
– Apuesta quíntuple especial.

3.– Por Orden del Consejero de Interior, podrán incorporarse nuevos tipos de apuestas a la relación establecida en el apartado anterior.

4.– Los diferentes tipos de apuestas podrán implantarse todos a la vez o progresivamente a propuesta de las entidades que tengan encomendada su organización, explotación y gestión, previa autorización de la Dirección de Juego y Espectáculos.

*Artículo 6.*– Prohibiciones de apostar.

No podrán participar en ningún tipo de apuesta, interna o externa, de las reguladas en el presente Decreto:

a) Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 23.1 atalean aipatutako pertsonak.

b) Zaldi-lasterketak antolatzen dituzten erakundeetako zuzendaritzako kideak, dekretu honen hirugarren atalburuan aipatzen diren erakundeetako titularrak, akziodunak, kapitalaren ordezkariak eta partaideak, langileak, zuzendariak eta enplegatuak. Apustu egiteko debekua esandako pertsonen ezkontide eta lehen mailako aurreko eta ondorengoenganaino zabaltzen da. Hori guztia, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 23.3 atalarekin bat etorriz.

c) Apustu egiten den lasterketan diharduten lasterketa-komisarioak eta komisario horien erabakien aurkako errekurtsoak ebazten dutenak.

d) Apustu egiteko moduko edozein lasterketatan parte hartzen dutenak, hau da: zaldizkoa, profesionala izan ala ez izan, ikastuna, entrenatzailea, prestatzailea edo enplegatua.

e) Apustuen kontrola eta ikuskaritzaren ardurak daramatzaten poliziak.

*7. atala.*– Apustuan jokaturiko diruaren banaketa.

1.– Gutxienez, barruko eta kanpoko apustuan jokatutako zenbatekoaren ehuneko 40a eta 55a, hurrenez hurren, banatuko da sarietan; gainerakoa, behin ordaindu beharreko zergak eta arielak ordaindurik, apustua antolatu eta ustiatzen duen erakundearen esku geratuko da.

2.– Apustuak egiten diren lekuetan iragarkiak jarriko dira jendearen ikusgai, jokoaren arauei buruzko argibideak eta sarietan banatzen den horrenbestekoa ezagutzera emateko.

III. ATALBURUA

Apustu hipikoak antolatu eta ustiatzeko baimenaren araubidea.-

*8. atala.*– Aurretiazko baimena.

1.– Zaldi-lasterketen emaitzei buruzko barruko zein kanpoko apustuen antolamenduak, ustiapenak eta kudeaketak eta inguruko iharduera guztiek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren aurretiazko baimena beharko dute izan.

2.– Batez ere honako hauek izango dira aurretiazko baimena behar duten iharduerak:

a) apustu-txartelaren eta ordezkagiriaren ereduak,

b) apustu-unitatearen gehienezko kopurua,

c) apustu-txartelak jaso eta erregistroan gordetzeko lekuak, ostalaritza-establezimenduak barne, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 16. atalarekin bat etorriz eta legea garatzeko arauak kontuan izanik,

d) apustua egiteko behar den material teknikoaren homologazioa, horretarako erabil daitezkeen makinak eta sistema informatikoak barne,

3.– Erakunde antolatzaileak lasterketa-programa

a) Las personas a que se refiere el artículo 23.1 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

b) Los miembros de la Junta Directiva de las entidades organizadoras de carreras de caballos y los titulares, accionistas, representantes del capital y partícipes de las entidades a que se refiere el Capítulo tercero de este Decreto, así como el personal, directivos y empleados de dichas entidades. La prohibición se extiende a sus cónyuges, ascendientes y descendientes en primer grado. Todo ello, de conformidad con el artículo 23.3 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

c) Los comisarios de carreras que ejerzan sus funciones en la carrera objeto de apuesta y las personas que resuelvan recursos contra las decisiones de dichos comisarios.

d) Quienes participen en cualquier carrera que pueda ser objeto de apuesta, a título de jinete, sea profesional o no, aprendiz, entrenador, preparador o empleado.

e) Las unidades policiales que tienen por objeto el control e inspección de las apuestas.

*Artículo 7.*– Reparto de las cantidades apostadas.

1.– Del importe total jugado en la apuesta interna y externa, el 40 por ciento y el 55 por ciento respectivamente, como mínimo, será destinado a premios, quedando el resto en poder de la entidad que organice y explote la apuesta, una vez satisfechos los impuestos y arbitrios procedentes.

2.– En los locales donde se realicen las apuesta deberá constar de manera visible información relativa a las reglas de desarrollo del juego y, en todo caso, al porcentaje concreto destinado a premios.

CAPÍTULO III

Régimen de la autorización para la organización y explotación de las apuestas hípicas.-

*Artículo 8.*– Autorización previa.

1.– La organización, explotación y gestión de apuestas internas y externas sobre resultados de carreras de caballos y todas las actividades vinculadas a las mismas, estarán sujetas a autorización previa por parte de la Dirección de Juego y Espectáculos.

2.– En particular estarán sujetas a autorización previa:

a) el modelo de la papeleta de apuesta y del resguardo,

b) la cuantía máxima de la unidad de apuesta,

c) los locales habilitados para realizar la recepción y registro de las papeletas o tickets de apuestas, incluidos los establecimientos de hostelería, de acuerdo con el artículo 16 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego y la normativa de desarrollo,

d) la homologación del material técnico necesario para la realización de la apuesta, incluidas las máquinas y los sistemas informáticos que puedan ser utilizados a tal fin.

3.– Queda excluida de autorización previa, en todo

prestatzeak ez du aurretiazko baimenaren beharrik izango.

*9. atala.*– Apustuak jaso eta erregistroan gordetzeko lekuak.

1.– Apustu-txartelak eta ordezkagiriak jaso eta erregistroan gordetzeko lekuak irekitzeko baimena kanpoko apustua antolatu, ustiatu eta kudeatzeko onartutako erakundeak eskatu behar du. Leku horien kudeaketa zuzenean edo hitzarturiko ordezkarien bitartez egin ahal izango du.

2.– Baimen hori gehienez hamar urterako emango da, kanpoko apustua ustiatu, antolatu eta kudeatzeko baimena lehenago iraungitzen ez bada, hori horrela izanez gero, baimen biak iraungiko lirateke aldi berean.

3.– Zilegi ez diren lekuetan zigilaturiko apustu-txartelek eta ordezkagiriek ez dute baliorik izango.

*10. atala.*– Baimendutako erakundeak.

1.– Apustu hipikoak ustiatu eta kudeatu ahal izateko, enpresa lehiakideek izena eman behar dute Jokoaren Errejistro Nagusian eta honako baldintza hauek bildu behar dituzte:

a) Pertsona juridikoa izanez gero:

1) Baltzu edo kooperatiba gisa eratzea, indarrean dagoen legeriaren arabera, gutxienez hogei milioi pezetako kapitala izanik, kanpoko apustua kudeatu nahi bada, bestela, barruko apustua antolatu nahi izanez gero, kapitala hamar milioikoa izango da gutxienez, kapitala erabat ordainduta egongo da eta akzioka edo izendun partaidetza-agirika banaturik. Titulu horien eskualdaketa Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendu behar du aurretiaz.

2) Baltzuaren helburua dekretu honetan jasotzen diren apustuak ustiatzea eta haien inguruko iharduerak garatzea izatea.

3) Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 19. atalaren 4 eta 5. puntuetan ezarritako debeku-kasuetan ez egotea bazkide partaideetariko bat ere.

4) Helbide bat izatea Euskal Autonomi Elkartean, dagokion herri-administrazioarekin harremanak izateko ondorioetarako.

b) Pertsona fisikoek atal honen 1. pasartearen a) hizkiaren 3 eta 4. puntuetan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte.

2.– Aurreko puntuan ezarritakoaren kaltetan joan gabe, dekretu honen 11. atalean aipatzen den lehiaketa irekian parte hartzen dutenek beste baimen bat lortu dutela egiaztatu beharko dute, hots, Euskadiko hipodromoen jabeen baimena, hipodromo horietan egiten diren lasterketak apustugai erabili ahal izatekoa.

3.– Apustuak egiteko aukera duten hipodromoetako erakunde kudeatzaileei dagokie barruko apustua antolatu, ustiatu eta kudeatzea.

caso, la aprobación del Programa de Carreras por la entidad organizadora.

*Artículo 9.*– Locales habilitados para la recepción y registro de apuestas.

1.– La autorización de locales habilitados para realizar la recepción y registro de las papeletas de apuestas y resguardos se solicitará por parte de la entidad autorizada para la organización, explotación y gestión de la apuesta externa. La gestión de dichos locales podrá realizarla directamente o a través de distribuidores concertados.

2.– La autorización se otorgará por un plazo máximo de diez años, sin perjuicio de su caducidad en el momento del vencimiento de la autorización para la explotación, organización y gestión de la apuesta externa.

3.– Carecerán de validez las papeletas de apuestas y resguardos registrados fuera de los locales autorizados.

*Artículo 10.*– Entidades Autorizadas.

1.– Para llevar a cabo la actividad de explotación y gestión de las apuestas hípicas, las empresas interesadas deberán solicitar su inscripción en el Registro Central de Juego, debiendo reunir las siguientes condiciones:

a) En el caso de las personas jurídicas:

1) Constituirse bajo la forma de sociedad mercantil o cooperativa, de acuerdo con la legislación vigente, con un capital mínimo de veinte millones de pesetas, en el caso de la sociedad interesada en la gestión de la apuesta externa, y diez millones para la sociedad interesada en la gestión de la apuesta interna, que deberá estar totalmente desembolsado y representado por acciones o participaciones nominativas, cuya transmisión deberá ser previamente autorizada por la Dirección de Juego y Espectáculos.

2) Tener por objeto social el desarrollo de actividades de explotación de apuestas a que se refiere este Decreto y actividades conexas o relacionadas con las mismas.

3) No estar incurso, por ninguno de los socios partícipes, en los supuestos de inhabilitación establecidos por los números 4 y 5 del artículo 19 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

4) Fijar un domicilio dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los efectos de su relación con la Administración competente.

b) Las personas físicas deberán cumplir los requisitos exigidos en los puntos 3 y 4 del apartado a) del párrafo 1 de este artículo.

2.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, quienes participen en el concurso público a que se refiere el artículo 11 del presente Decreto, deberán acreditar haber obtenido autorización de los titulares de los hipódromos del País Vasco para incluir carreras que se celebren en los mismos.

3.– La organización, explotación y gestión de la apuesta interna corresponderá a las entidades que tengan adjudicada la gestión de hipódromos con apuestas.

*11. atala.*– Kanpoko apustua esleitzeko ihardunbidea.

1.– Kanpoko apustua antolatu, ustiatu eta kudeatzeko baimenak lehiaketa ireki bidez esleituko da.

2.– Lehiaketa irekirako deialdia Herrizaingo sailburuaren agindu bidez egingo da, eta bertan ezarriko dira lehiaketaren oinarri-arauak.

3.– Baimenak ematerakoan, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legea, deialdiaren oinarri-arauak eta, orokorrean, gai horrekin zerikusia duten xedapenak hartuko dira aintzat.

4.– Era berean, hurrengo xehetasun hauek ere hartuko dira kontuan baimena ematerakoan:

a) Sustatzaileen kaudimena, lanbidearen zein finantzaren ikuspuntutik begiratuta.
b) Inbertsioen programa.
c) Sortzen den lanpostu-kopurua.
d) Proiektuaren merkatal bideragarritasuna.
e) Zaldiak haztea eta esparru hipikoak sustatzea Euskal Autonomi Elkartean.

5.– Lehiaketa irekirako deialdi-aginduan zehaztuko dira esandako xehetasun horiek.

*12. atala.*– Baimenen indarraldia.

1.– Apustu hipikoak, barrukoak zein kanpokoak, antolatu, ustiatu eta kudeatzeko baimenak 10 urterako emango dira.

2.– Iraupen bereko beste epealdi baterako ere luzatu daitezke, beti ere indarrean dagoen legeriaren arabera eskatzen diren baldintzak betetzen badira berriztatzegaraian.

3.– Baimenaren indarraldian barrena emateko eskatzen ziren baldintzetariko bat edo batzuk galtzen badira, baimena ezezta daitezke, behar den espedientea izapidetu eta gero; Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen IV. atalburuaren arabera ezar litezkeen zehapenen kaltetan joan gabe.

*13. atala.*– Apustuak antolatzen dituzten erakundeak.

1.– 5.3 atalean aipaturiko apustu-motak, barrukoak nahiz kanpokoak, antolatzen dituzten erakundeei dagokie hurrengo eginkizun hauek burutzea:

a) Apustuak errejistroan jaso eta bateratu.

b) Apustu-mota bakoitzean jokaturiko diru-kopurua zenbatu, sarietarako erabiltzen den portzentaia aplikatu eta datu horiek argitaratu.

c) Igarritako apustu bakoitzeko eman beharreko etekina kalkulatu eta ordaindu.

d) Eragiketa guztiak arauzkoak direla eta indarrean dagoen legeria betetzen dela zaintzea.

*Artículo 11.*– Forma de adjudicación de la apuesta externa.

1.– La adjudicación de autorizaciones para la organización, explotación y gestión de la apuesta externa se realizará por concurso público.

2.– La convocatoria del concurso público se realizará mediante Orden del Consejero de Interior y en la misma se establecerán las Bases que han de regir la adjudicación del concurso.

3.– Para la concesión de autorizaciones se estará a lo dispuesto en la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, en las Bases de la convocatoria, y, en general, a cuantas disposiciones le sean de aplicación.

4.– La resolución de autorización atenderá a los siguientes criterios:

a) Solvencia de los promotores, tanto profesional como financiera.
b) Programa de inversiones.
c) Generación de puestos de trabajo.
d) Viabilidad comercial del proyecto.
e) Fomento de la cría caballar y promoción de recintos hípicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

5.– La Orden de convocatoria del concurso público desarrollará el contenido de estos criterios.

*Artículo 12.*– Plazo de las autorizaciones.

1.– Las autorizaciones para la organización, explotación y gestión de las apuestas hípicas, internas y externas, se otorgarán por un plazo de 10 años.

2.– Las autorizaciones serán renovables por otro plazo de la misma duración, siempre que en el momento de la solicitud de renovación se cumplan los requisitos exigidos por la normativa vigente.

3.– Las autorizaciones podrán ser revocadas, previa la instrucción del oportuno expediente, cuando durante el período de vigencia se pierdan todas o alguna de las condiciones que determinaron su otorgamiento, sin perjuicio de las sanciones a que hubiera lugar de acuerdo con lo dispuesto en el Capítulo IV de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

*Artículo 13.*– Entidades organizadoras de apuestas.

1.– Corresponde a las entidades que organizan las apuestas, tanto internas como externas, las siguiente funciones en relación con los distintos tipos de apuesta a que se refiere el artículo 5.3:

a) Llevar a cabo y asegurar el registro y la centralización de apuestas.

b) Totalizar la cantidad en juego en cada tipo de apuesta, aplicar el porcentaje destinado a premios y hacer públicos dichos datos.

c) Calcular la cantidad o dividendo a pagar por apuesta acertada y proceder a su abono.

d) Controlar la regularidad en todas las operaciones y velar por el cumplimiento de la legislación vigente.

2.– Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eragiketa horiek guztiak ikuskatu eta egiaztatzeko eskubidea izango du, eta egoki usten duen eran eta garaian gauzatu ahal izango du eskubide hori.

3.– Atal honetan jasotzen diren erakundeek kontularitza berezia eraman behar dute, Herrizaingo sailburuaren agindu bidez ezarriko diren baldintzetan.

4.– Apustu hipikoen arloko arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean ezarritakoari lotuko zaio.

5.– Apustua errejistroan jasotzen dela ziurtatu ezean, apustua ez da gauzatuko, horren ondorioak edonolakoak izanda ere, apustulariei jokaturiko diru-kopuruak itzultzeko dagoen beharra inolaz ere baztertu barik.

6.– Apustuetarako baimena duten enpresek diru-ikuskaritza aurkeztu behar diote urtero Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari.

*14. atala.–* Fidantzak.

1.– Apustu hipikoak, barrukoak nahiz kanpokoak, antolatu, ustiatu eta kudeatzeko baimenaren jabeek hogeita hamar milioi pezetako fidantza utzi behar dute, kanpoko apustua bada, eta hamar milioikoa, barrukoa izanez gero.

2.– Baimena eman eta hilabeteko epean eratu behar da fidantza Euskadiko Diruzaintza Nagusian, Autonomi Elkartearen Administrazio Orokorraren izenean. Esandako epean fidantza eratzen ez bada, eten egingo da baimenaren indarraldia eta, hiru hilabeteko epean eratu ezean, iraungi egingo du.

3.– Fidantza diruz edo abalaz eratu ahal izango da. Abalaz izanez gero, banketxe, aurrezki-kutxa, aseguruetxe edo kreditu-kooperatiben abala edo 33/1984 Legearen menpeko elkarrekiko bermedun baltzuen abala izan behar da. Baimenak dirauen artean utzi behar da fidantza, gehienezko diru-kopurukoa, eta Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean ohartemandako eginbeharrak ez betetzeagatik ezar litezkeen diru-zehapenen baldintzapean geratuko da.

4.– Fidantzaren zenbatekoa murriztuko balitz, baimenen jabeek, bi hilabeteko epean, osatu beharko lukete derrigorrezko diru-kopurua eduki arte. Fidantza ez osatzeak baimenaren indargabetzea ekartzen du berarekin.

*15. atala.–* Iharduera monopolistiko eta oligopolistikoen kontrola.

1.– Apustuak antolatu, ustiatu eta kudeatzeko baimena duten erakundeetako titular, bazkide edo partaideek ezin dute joko-makina, joko-kasino edo bingoaretoez arduratzen diren enpresen jabe izan, ezta enpresa horiek osatzen dituzten baltzuetako akzio edo partaidetza-agirien erdia baino gehiagoren jabe ere.

2.– Kanpoko apustua antolatu, ustiatu eta kudeatze-

2.– La Dirección de Juego y Espectáculos se reserva la inspección y control de dichas operaciones, que la ejercerá en la forma y momento que estime oportunos.

3.– Las entidades a que se refiere el presente artículo estarán obligadas a llevar una contabilidad especial en los términos que se disponga por Orden del Consejero de Interior.

4.– En lo relativo al régimen de infracciones y sanciones en materia de apuestas hípicas, se estará a lo dispuesto en la Ley 4/1991 de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

5.– No tendrá lugar la apuesta cuando resulte imposible asegurar el registro de las apuestas cualquiera que sea la naturaleza de sus consecuencias, sin perjuicio de la obligatoriedad de la devolución de las cantidades jugadas a los apostantes.

6.– Las empresas titulares de autorización de apuestas deberán presentar anualmente ante la Dirección de Juego y Espectáculos auditoria contable de aquellas.

*Artículo 14.–* Fianzas.

1.– Los titulares de autorizaciones para la organización, explotación y gestión de apuestas hípicas, internas y externas, deberán formalizar fianza de treinta millones, en el caso de apuesta externa, y diez millones en el caso de apuesta interna.

2.– La fianza se formalizará en el plazo de un mes desde el otorgamiento de la autorización y se hará a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma en la Tesorería General del País Vasco. Transcurrido dicho plazo sin formalización, la autorización quedará en suspenso, caducando cuando no se haya formalizado en el plazo de tres meses desde el otorgamiento de la autorización.

3.– La fianza podrá constituirse en metálico o mediante aval de Banco, Caja de Ahorros, Entidades de Seguros, Cooperativas de Crédito o Sociedades de Garantía Recíproca sometidas a la Ley 33/1984, y deberá mantenerse en tanto dure la autorización por la cuantía máxima de su importe, quedando afecta al pago forzoso de las sanciones pecuniarias derivadas del incumplimiento de las obligaciones previstas en la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego.

4.– Si se produjera la disminución de la cuantía de la fianza, los titulares de las autorizaciones deberán, en el plazo de dos meses, completar la misma en la cuantía obligatoria. La no reposición de la fianza determinará la revocación de la autorización.

*Artículo 15.–* Control de actividades monopolísticas y oligopolísticas.

1.– No podrán ser titulares, socios o partícipes de las entidades autorizadas para la organización, explotación y gestión de las apuestas quienes sean titulares de empresas operadoras de máquinas de juego, casinos de juego o salas de bingo o las personas físicas o jurídicas que ostenten más del cincuenta por ciento de las acciones o participaciones de la sociedad o sociedades que constituyan las citadas empresas.

2.– No podrán ser titulares de las entidades autori-

ko baimenduta dauden erakundeen titularrek ezin izango dute, aldi berean, barruko apustua kudeatzen duten erakundeen titularrak izan. Muga horien ondorioetarako, pertsona juridikoaren akzioen edo partaidetza-agirien erdia baino gehiagoren jabe dena titulartzat joko da.

3.– Aurreko zenbakietan adierazitako mugak ordezko pertsonentzat ere daude jarrita, hots, beren izenean ihardun arren beste baten mesedetan aritzen direnentzat. Horrelakoetan onuradunak dituen akzioak eta partaidetza-agiriak ordezkoarenak bailiran joko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Apustu hipikoa Jokoen Katalogoan sartzea.

Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 3. atalaren ondorioetarako, apustu hipikoa, barrukoa zein kanpokoa, Euskal Autonomi Elkarteko Jokoen Katalogoan sartzen da.

*Bigarrena.*– Plangintza.

Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 4. atalean ezarritakoari jarraiki, honela egingo da apustu hipikoaren plangintza:

1.– Kanpoko apustuaren berezitasunak kontuan izanik, baimen bakarra emango da Euskal Autonomi Elkartean apustu-mota hori antolatu, ustiatu eta kudeatzeko.

2.– Apustuak egiteko baimena duten hipodromoak hiru izango dira Euskal Autonomi Elkartean, lurralde historiko bakoitzeko bat.

3.– Plangintza honek hamar urtetan iraungo du indarrean.

4.– Donostiako hipodromoa, plangintza honen ondorioetarako, xedapen honen 2. puntuan adierazitako lurralde-banaketan hartu da kontuan eta, beraz, ihardunean jarraituko du.

*Hirugarrena.*– Definizioak.

Dekretu honen eta hurrengo garapen-arauen ondorioetarako, hurrengo kontzeptuak azaltzen diren modukoak direla ulertuko da:

a) Hipodromoak: edozein motatako zaldi-lasterketak egiteko esparruak, lege eta araudi-baldintza guztiak betetzen direlarik.

b) Apustuaren gehienezko zenbatekoa: apustu-txartel bakoitzeko joka daitekeen diru-kopururik handiena.

c) Apustu-txartela: apustua egin dela egiaztatzen duen agiri normaldua da, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutakoa.

d) Apustu-txartelak jaso eta errejistroan gordetzeko lekua: eragiketa horiek, eskuz edo automatikoki, egiteko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako tokia.

zadas para la organización, explotación y gestión de la apuesta externa quienes lo sean, a su vez, de la entidad o entidades que gestionen las apuestas internas. A los efectos de estos límites, se considerará titular de la persona jurídica a quién ostente más de un 50 por ciento de acciones o participaciones en la misma.

3.– Los límites señalados en los números anteriores se refieren asimismo a persona interpuesta que actúe en nombre propio pero en interés de un tercero, computándose en tal caso, a efectos de dichos límites, las acciones o participaciones como propias de la persona en cuyo interés actúen.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– Inclusión de la apuesta hípica en el Catálogo de Juegos.

A los efectos del artículo 3 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, se incluye la apuesta hípica, interna y externa, en el Catálogo de Juegos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Segunda.*– Planificación.

De conformidad con el artículo 4 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora de Juego, se procede a la planificación de la apuesta hípica en los siguientes términos:

1.– En atención a las especialidades de la apuesta hípica externa sólo se concederá una autorización para su organización, explotación y gestión en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Se limita a tres el número de hipódromos con apuestas, a razón de uno por cada Territorio Histórico, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– El plazo de la vigente planificación es de diez años.

4.– A efectos de la presente planificación permanece vigente e incluida en la distribución territorial señalada en el punto 2 de esta disposición, el Hipódromo de Donostia-San Sebastián.

*Tercera.*– Definiciones.

A los efectos del presente Decreto y la normativa que lo desarrolle se entiende por:

a) Hipódromos, los recintos en que, cumpliéndose los requisitos legales y reglamentarios, se celebren carreras de caballos en cualquiera de sus modalidades.

b) Cuantía máxima de la apuesta, es la cantidad máxima que puede formalizarse por cada papeleta o ticket de apuesta.

c) Papeleta o ticket, es el documento normalizado, autorizado por la Dirección de Juego y Espectáculos, que acredita la formalización de una apuesta.

d) Local habilitado para la recepción y registro de papeletas o tickets de apuestas es aquel autorizado por la Dirección de Juego y Espectáculos a dichos efectos, sean estas operaciones realizadas de forma manual o automática.

*Laugarrena.*– Euskal Autonomi Elkartetik at egiten diren zaldi-lasterketei buruzko kanpoko apustua onartzea.

1.– Euskal Autonomi Elkartetik at egiten diren zaldi-lasterketei buruzko kanpoko apustuak egin ahal izango dira, baldin eta, aginduzkoa denean, dagokion agintarien baimenak lortu badira eta lasterketa antolatu duen edo apustua ustiatzen duen erakundearen baimena eskuratu bada.

2.– Baimenaren titularrak jakitera emango dio Herrizaingo Sailaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari aurreko puntuan zehazturiko zertzeladen berri. Eskaria aurkeztu eta hilabeteko epean Administrazioak ezezkorik ematen ez badu, eskariari baimena eman zaiola ulertuko da.

3.– Edonola ere, Euskal Autonomi Elkarteko apustu hipikoei buruzko araubidea izango da kontuan hartu beharrekoa.

*Bosgarrena.*– Beste erakunde batzuekiko hitzarmenak.

1.– Kanpoko apustua antolatu, ustiatu eta kudeatzeko baimena duen erakundeak hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu Euskal Autonomi Elkartetik kanpoko erakundeekin, helburu bera badute, han antolaturiko zaldi-lasterketak apustugai hartzeko hemengo erakundean edo, areago, apustu bakarra antolatzeko bien artean.

2.– Hitzarmenetan honako aukera hau jaso daiteke: apustu-mota bakoitzeko bildutakoa bateratzea eta, lasterketa berak kontuan edukita, mozkin berdintsuak banatzea irabazleei.

3.– Herrizaingo sailburuak onartu behar ditu aipaturiko hitzarmenak.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Barruko apustua baimentzea.

Donostiako hipodromoa kudeatzen duen erakundea dekretu honen 10. atalean ezarritakora egokituko da bi urteko epean, dekretu honek indarra hartzen duenetik.

*Bigarrena.*– Kanpoko apustua aldibaterako baimentzea.

1.– Kanpoko apustua kudeatzeko baimena ematen ez den artean, dekretu honen 11. atalaren arabera, dekretu honek indarra hartzen duen garaian apustu-mota hori ustiatzen dutela Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari edozein frogagiriz erakusten diotenek jarraitu ahal izango dute iharduera horretan baimena eman arte, baina ihardunean jarraitze horrek ez du inolako lehentasun-eskubiderik ekarriko lehiaketa irekia egiten denean. Hori guztia, dekretu honetan eta makina eta joko-lekuen arloko araubidean ezarritakoaren kaltetan joan gabe, apustuak egiteko makinei eta gaitutako lekuei dagokienez.

*Cuarta.*– De la inclusión en la apuesta hípica externa de carreras de caballos celebradas fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

1.– Podrán efectuarse apuestas externas en relación a carreras de caballos que se celebren fuera del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que, cuando fuere preceptivo, se hubieren obtenido las autorizaciones administrativas de la autoridad de tutela, así como los permisos o autorizaciones precisas por parte de las entidades organizadoras de carreras o explotadoras de la apuesta.

2.– El titular de la autorización dará cuenta a la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior de la concurrencia de los requisitos especificados en el apartado anterior. Si en el plazo de un mes desde la presentación de la solicitud no se manifiesta objeción por parte de la Administración, dicha solicitud se entenderá autorizada.

3.– En cualquier caso, se aplicará la reglamentación de apuestas hípicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Quinta.*– Convenios con otras entidades.

1.– La entidad autorizada para la organización, explotación y gestión de la apuesta externa podrá celebrar convenios con otras entidades que tengan el mismo objeto fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a efectos de incluir apuestas sobre carreras de caballos por ellas organizadas e, incluso, conformar entre ambas una sola apuesta.

2.– Los convenios podrán implicar una totalización contable común por cada tipo de apuesta sobre las mismas carreras, de manera que los dividendos pagados a los ganadores sean equivalentes.

3.– Los convenios deberán ser autorizados por el Consejero de Interior.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*– Autorización de apuesta interna.

En el plazo de dos años a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, la entidad gestora del Hipódromo de Donostia-San Sebastián deberá adaptarse a lo previsto en el artículo 10 del presente Decreto.

*Segunda.*– Autorización temporal de la apuesta externa

1.– En tanto no se adjudique la autorización para la gestión de la apuesta externa, de acuerdo con lo previsto en el artículo 11 del presente Decreto, quienes acrediten por cualquier título, ante la Dirección de Juego y Espectáculos, la explotación a la entrada en vigor de este Decreto de dicha apuesta, podrán continuar con dicha actividad durante el periodo citado, sin que suponga adquisición de derecho preferente alguno sobre el ulterior concurso público. Todo ello, sin perjuicio, en lo relativo a máquinas de cruce de apuestas y establecimientos habilitados, de lo que disponga el presente Decreto y la reglamentación sectorial en materia de máquinas y locales de juego.

2.– Aurreko puntuan aipatzen diren zertzeladak egiazkoak direla egiaztatu ondoren, Administrazioak dekretu honen 14. atalaren araberako fidantza hilabeteko epean eratzeko eskatuko dio enpresa ustiatzaileari, baita eskatu ere helbide bat izateko Euskal Autonomi Elkartean, dagokion Administrazioarekin harremanak izateko eta establezimenduak zein apustuak egiteko makinak baimentzeko.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Indarraldia noiz hasi.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

*Bigarrena.*– Garapen-arauak.

Ahalmena ematen zaio Herrizaingo sailburuari dekretu hau garatzeko behar hainbat xedapen emateko.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko uztailak 4.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

2.– La Administración, una vez comprobada la veracidad de las circunstancias a que se refiere el apartado anterior, requerirá de la empresa explotadora para que en el plazo de un mes formalice la fianza a que se refiere el articulo 14 del presente Decreto, fije un domicilio en la Comunidad Autónoma del País Vasco a los efectos de su relación con la Administración competente y sean autorizados los establecimientos y máquinas de cruce de apuestas

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.*– Normas de desarrollo.

Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de julio de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**2894**

354/1995 DEKRETUA, uztailaren 4koa, Kabinete Teknikoaren zuzendariak bere kargua utz dezala erabakitzen duena.

1995eko uztailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (129 zka.) argitaratutako aginduan akats bat somatu da. Hona hemen akats horren zuzenketa:

Honako hau esan beharrean: «Atal bakarra.– Joaquín Villa Martínez jaunak Kabinete Teknikoaren zuzendari izateari utz diezaiola. Eskerrak ematen zaizkio egin dituen zerbitzuengatik».

Beste hau esan behar du: «Atal bakarra.– Joaquín Villa Martínez jaunak Kabinete Teknikoaren zuzendari izateari utz diezaiola, berak horrela eskatu baitu. Eskerrak ematen zaizkio egin dituen zerbitzuengatik».

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**2894**

DECRETO 354/1995, de 4 de julio, por el que se dispone el cese del Director del Gabinete Técnico. (Corrección de errores).

Advertido error en la citada Orden de 4 de julio de 1995, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 129 de 7 de julio de 1995, se procede a su corrección:

Donde dice: «Artículo único.– Cesar a D. Joaquín Villa Martínez como Director del Gabinete Técnico, agradeciéndole los servicios prestados».

Debe decir: «Artículo único.– Cesar, a petición propia, a D. Joaquín Villa Martínez como Director del Gabinete Técnico, agradeciéndole los servicios prestados».